

RENATA SALECL

Enthusiasm_archivo_taller mintegian, debekuaren gizarte logikaren ikuspuntutik gizarte kapitalistetan pertsonak dituzten kezkek aztertu zituen Renata Salecl filosofoak eta soziologoak.



Mendebaldeko gizarteetan badirudi pertsonak zer izan nahi duten aukera dezaketela gaur egun. Gizarte kapitalistetako esklabo proletarioa kontsumitzaile bat da mugarik gabeko askatasunaren erreinuan. Beren boterea galdu dute iraganen arauak jartzen zituzten garaian garaiko agintariek, esate baterako gurasoek, estatuak edo elizak, eta "Goiko Hori" izendatzen zena, portaera ohiturez eta arauetz osaturiko egitura sinboliko hori alegia, desagertu egin da. Saleclen iritziz, gizarte kapitalista berantiarrek sortu dute "mugarik gabeko" mundu hori. Izan ere, aukeratzeko eta aukerak izateko mugarik ez duen munduan bizi garela aldarrikatzen dute, aukeratzean datzala gauza guztien muina. "Gure gizarteek *hautaketaren tirania eta askatasunaren ugaritasuna* pairatzen dute eta egoera horrek larritasuna sortzen digu maiz askotan", adierazi zuen Salecl. Gaizki aukeratzeari beldurra diogulako gara larri, beti egoten garelako aukera hobe baten aukeraz kezketan. Eta, horregatik bada, gure ordezkari aukeratuak duen norbaiten bila gabiltza beti, baina beste norbait hori ez dago inon, edo, ez ote kezkarriago?, nonbaiten baina ezkutuan dago.

Mugarik gabeko askatasun horren sustraietan, jarraibideen ohiturik eta araurik gabeko gizarte honen oinarrian, etengabe kontsumitzera behartzen gaituen merkatu ekonomia bizi da. Beste aldetik, estatuen esku-hartzea gero eta zabalagoa da eta gure pertsonalak biderkatzen ari dira etengabe. Eta horregatik hain zuzen, geure buruari galdetu beharko genioke ea kapitalismo berantiarra zergatik tematzen den gu mugarik ez balego bezala bizi gaituzten. Benetako errealitatea hain etsigarria ote da?

Psikoanalista batzuk baieztatu dute jokamolde horrek psikosia ongarrizten duela argi eta garbi. "Mugarik gabeko mundu horrek", non pertsona orok nahi duena izan eta egin dezakeen, non aukerak mugagabeak diren denontzat, zorionaren iturri izan beharko luke denontzat, baina egiaz zoritxarraren iturri da. Larritasunak itzal gero eta zabalagoa du, eta bere buruari arauak jartzen hasia dago jendea, beste "Goiko" bat sortzeko premia handia baitu, lagun diezaion aukeratzeko edo ez-aukeratzea erabakitzen. Begien bistakoa da errotik aldatu dela bai geure buruari buruz eta bai beste "Goiko Hori" buruz dugun ikuskera, baina bide beretik aldatu ote da gure kezken nolakotasuna? "Erantzuna edozein delarik ere, ezin uka sufrimenduaren sakontasunaren ikuspuntutik gailendu gatzazkiela gure arbasoei", esanez amaitu zuen Salecl.